



GORKA RUBIO / FOKU

«Lokatzetan EH Bildu sartu da, eta horrek denei eragiten digu»

Eider Mendoza • EAJko Gipuzkoako ahaldungai nagusia

Mendozaren arabera, hurrengo legegintzaldian «egokitzapen batzuk» egin beharko dira zerga sisteman; halere, ahaldungaiak uste du egungo sistemak krisiari «ondo» erantzun diola pandemia garaian.

Xabier Martin Donostia

Osasun arloan dauden «zailtasunei» erantzungo zaiela «hitze-man» du Eider Mendozak (Azpeitia, Gipuzkoa, 1974). Orain arte «eslogan ugari» entzun ditu kanpainen, baina beste alderdiek «proiektu gutxi» dituztela dio.

Kanpaina hasiera nahasi samar doa; proiektuei buruzko eztabaidari ez dio laguntzen askorik egoerak, ezta?

Oso zaila egiten ari zait eztabaida politikoa egitea alderdi batzuekin, ez dutelako inolako proposamenik eta ez dutelako adierazten ere nola eraman nahi duten aurrera esaten dutena. Ezerezarekin batera eslogan asko entzuten ditut, baina proposamenik ez. Eredurik gabe ari dira batzuk, eta oso soslai apalarekin. Ez dut ikusten borondaterik eztabaida sortzeko proiektuen inguruan.

Oroimenaren webguneak, EH Bilduren zerrendak... Ez al da lokatzu gehiegi kanpaina proiektuak behar bezala azaltzeko?

Koalizio batek erabaki du zazpi pertsona horiek zerrendetan sartzea; erabaki bat izan da, ez da kasualitatea inondik ere. Baina ez dituzte ondorioak ondo neurtu, eta Voxi eta Ayusori kanpaina egin diote, eta, aldi berean, kaltea Pedro Sanchez. Horren ondorioak kuñatzea oso zaila dute orain. Gaizki eta berandu erabaki dute zazpi horiek ez dutela kargua hartuko hautatuak badira. Memoriari, bizikidetzari eta biktimei dagokienez, begirune falta ikaragarria da. Iraganaren irakurketa kritikoa egin behar dute, ezinbestekoa da; baina oraindik mendekotasun handia dute eta harreman oso txikoa ETArekin. Lokatzetan EH Bildu sartu da burubelari, eta horrek denei eragiten digu, eztabaida asko espainiaru dutelako.

Nola eragin dio EAJri? Mesede egingo dio zure hautagaitzari?

Erabateko kaltea egiten dio horrek elkarbizitzari, memoriari eta biktimei; beraz, kalte egiten dio politikari orokorrean.

Zer iruditzen zaizu PSE-EEren

ukoa aldundiaren helegitea babesteari Uliazpiko euskararen aurkako epaiaren harira?

Hauteskundeetan bakoitzak bere soslai nabarmendu nahi izaten du. Guk gure estiloa daukagu, eta ez ditugu gure iritziak aldatzen hauteskundearen arabera; gure jokatibideak ez dituzte baldintzatzen hauteskundeak. Gipuzkoako Foru Aldundiak lan eskaintza publikoak egin izan dituenean, Gobernu Kontseiluak onartu ditu, eta alderdi guztien babesarekin. Horitik aurrera, hauteskundeetan alderdiek egiten dituzten jakinarazpenei buruz halakoak egiten dituztenei galdetu behar zaie.

EAJren gobernu bazkidea izan da orain arte PSE-EE. Komunikazio horrek ezustean hartu zaitu?

Hedabideetan jakinarazi zuten jarrera hori; Gobernu Kontseiluan ez dugu inolako gogoetarik egin horri buruz. Dena den, auzi horren inguruan guk esaten dugu bi hizkuntza ofizial daudela Gipuzkoan, eta biak ezagutu behar direla administrazio publikoan, zerbitzuak ematen ditue-

nean herritarrek eskubidea dutelako bi hizkuntzetan artatuak izateko. Aldundiko langileen %97k dagokien hizkuntza eskakizunak dauzkate. Sekulako ahalegina eskatu du, baina erabaki politiko bat da. Bide horretatik jokatzen jarraituko dugu, esaterako Euskaraldiaren ekimena zabalduz.

Euskaraz artatua izateko eskubidea eta lan eskubidea jartzen ditu PSEk aurrez aurre. Ados zaude horrekin?

Lanpostu bat eskaintzen denean ezaugarri batzuk eskatzen dira, eta horiek bete behar izaten dira. Argi daukat.

EAJk soslai abertzalea indartu du EH Bildurekin lehian dabilelako, PSEk esan duen moduan?

EH Bildu baino askoz lehenago sortu zen Eusko Alderdi Jeltzalea eta helburu batekin: independentzia lortzea. Ez dut zertan lehiatu EH Bildurekin.

Gipuzkoan lehia estua aurreikusi dute inkestek EAJren eta EH Bilduren artean. PSE-EE erabakigarria izango da gobernuaren eratzeko. Lasaitasuna ematen dizu horrek?

Nire anbizioa ez da diputatu nagusia izatea. Oso proiektu sendoa dugu, eta herritarren konfiantza eta atxikimendua eskuratzea da nire helburua. Oso goiz da jakiteko zer gertatuko den. Maiatzaren 28an ariketa demokratiko bat egingo dugu. Hau ez da lasterka bat. Gipuzkoarren borondatea zein den jakingo dugu, eta esandakoa errespetatu beharko da.

Baina PSEk dio ez duela «Bilduren kaosa» ekarriko bueltan. Aginte makila ez duzu gertuago ikusten?

Inondik inora ere ez. Herritarren borondateari errespetu handia diot, eta haren zain nago bestelako kalkulurik egin gabe.

Zerga erreforma bat eskatu dute alderdiek. Batik bat errenta zergak eta BEZak elikatzen duten sistema orekatu behar da?

Politika fiskala tresna bat da, nahikoa baliabide sortzeko zerbitzu publiko sendoak izan daitezten eta, aldi berean, ekonomia sustatzeko. Bi helburu horiek ikusten dizkiogu zerga sistemari. Horri esker, Gipuzkoa hainbat parametrotan Europako puntan dago: berrikuntzaren arloan, langabezia tasan, desberdintasuna neurtzen duten indizeetan, zaintzan... Hori posible da buruan ideia hori eduki dugulako: ekonomia indartsua behar dugu, jakinda helburua dela pertsonak ondo zaintzea. Pandemiaren ikusien sistema horrek krisiari oso ondo erantzun ziola.

MOTZEAN

Zer ez da falta zure poltsan?

Denetik daramat poltsan, egun osoko beharrei erantzuteko.

Aterki handia ondo babesteko ala txikia ondo eramateko?

Neurrikoa beti.

Zinemaren ikusitako azken filma?

Las buenas compañías.

Irakurritako azken liburua?

Iraurtzen ari naiz: *Marie Antoinette*, Stefan Zweigena.

Haserretu zaren azken aldia?

Orain dela gutxi. Etxean izan da etxeko lanak direla-eta: arropa ez doa bere kabuz garbigailura.

Eman duzun azken musua?

Gaur goizean, etxetik atera naizenean senarrari eman diot.

Baina orekatu behar da sistema fiskala?

Egokitzapenak egin beharko dira, baina Helgako lurraldeen pareko sistema bat daukagu, progresiboa eta orekatua. Gehiago dutenek gehiago ordaintzen dute. PFEZa bilketaren %40 da, baina gipuzkoarren %40k ez dute ordaintzen, eta ordaintzen dutenen artean %25ek ordaintzen dute biltzen den %100a. Hau da, herritarren laurden batek ordaintzen du PFEZa osoa. Ondare zerga daukagu, gainera, eta Europan ia desagerturik dago. Espainian atzetik dabilta tarte baterako onartu duten zerga handiarekin, adibidez.

Fortuna handien zerga bi urterako da, eta lehenari izkin egingo diote Gipuzkoako zergadunek, aldundiek denbora behar omen dutelako hura egokitzeko.

Baina badugu ondare zerga; hura ordaindu dute jadanik. Zerga horri dagokionez, Bilduren urterik onena bilketan gure urterik apalena izan da. Haiek jarduera ekonomikoari kalte egin zioten beren zergarekin. Esloganak dira gauza bat eta errealitatea beste bat.

Donostiako ESlaren auziari lotuta iritsi da lurraldeen arteko desoreka baten salaketa osasun zerbitzuetan. Nola defendatuko duzu Gipuzkoako arlo horretan ahaldun nagusi bazara?

Esloganak dira horiek. Gatazka bat sortu zen, baina zubiak eraiki dira, eta auzia bideratu da. Lehendakariak berak gezurtatu zuen zerbitzuak beste norabait eramango direla. Kontua da pandemiaren ondoren oso nekatutik iritsi direla profesionalak; Europa osoan gertatzen ari da: profesionalak falta dira. Baina Osakidetza sekulako ahalegina egiten ari da egoerari erantzuteko. Herritarrei konfiantza eskatzen diegu, eta hitzematen diegu: arazo hori bideratuko dugu.